

# ...eta kitto!

736 zkia. 2010-X-15

ASTEKARIA

TOKIKOM



Artxila mortxila...  
agertu daitezela...  
**BAZKIDE PILA**



## KOMUNITATEEN

ADMINISTRAZIOA

Tel: 943 70 25 40

**KOMUNITATEAK**

- Auzo komunitateen administrazioa
- Etxebizitzak, gariak, industiak...
- Jasotzaileen dirulaguntzen transmisioa

**AHOLKULARITZA**

- Fisikala
- Laborala
- Kontabilitateak
- Aseguruak

© 2010 KEIN GROUP. B-15. 48900  
Tel: 943 70 25 40 Fax: 943 20 11 20  
Email: [komunitate@kein.com](mailto:komunitate@kein.com)



# ONDO ENTZUTEA GOZAMENA DA

Zatoz entzuteko modu naturalena ezagutzera:  
belarri bi izanda, zergatik bakarra erabili?

ENTZUMEN-ZERBITZU  
BERRIA EZAGUTZERA ETORRI

Errebal, 14 20600 Eibar  
GIPUZKOA 943 202 137  
plazaola@naturaloptics.com

  
natural audio  
PLAZAOLA

[naturalaudio.net](http://naturalaudio.net)

> **klinika kortazar**

Gidabaimenak eta armabaimenak



# EIBARKO AZOKAREN ZOSKETA

# URRIAK

# 16-29

## HILEROKO ZOSKETA

**25 €-ko 24 erosketa txartel**  
**200 €-ko erosketa txartel bat**

 EIBARKO UDALA



**ARGITARATZAILEA:**

...eta kitto! Euskara Elkartea  
**HELBIDEA:**

Urkizu, 11 - solairuartea  
20600 Eibar

**TELEFONOAK:**

943 20 67 76 / 943 20 09 18

**FAXA:**

943 20 28 72

**Astekariaren E-MAILak:**

erredakzioa@etakitto.com

komunikabideak@etakitto.com

publizitatea@etakitto.com

**Elkartearen E-MAILak:**

elkartea@etakitto.com

normalizazioa@etakitto.com

**ERREDAKZIO-KONTSEILUA:**

Itziar Albizu

Jose Luis Gorostegi

Silbia Hernandez

Koldo Mitxelena

Ekhi Belar

**ADMINISTRAZIOA:**

Marisol Uriarte

**KOORDINATZAILEA:**

Koldo Mitxelena

**ERREDAKZIO-BURUA:**

Silbia Hernandez

**DISEINUA ETA MAKETAZIOA:**

Jose Luis Gorostegi

**ARGAZKI ARLOA:**

Maialen Belaustegi,

E. Belar eta S. Hernandez

**HIZKUNTZA ARDURA:**

Juan Andres Argoitia

Maidar Aranberri

**PUBLIZITATEA:**

Itziar Albizu

Belen Ulazia

**Tfnoa:** 943 20 67 76

**AZALEKO ARAGAZKIA:**

Silbia Hernández

**BANAKETA-ARDURADUNA:**

Ainhoa Luz

**TIRADA:**

7.950 ale

**INPRIMATEGIA:**

GERTU koop. (Oñati)

**COPYRIGHT-A:**

...eta kitto!

**LEGE-GORDAILUA:**

SS/430/92

ISSN: 1132 - 1679

(\*...eta kitto!\* ez du bere gain hartzen  
aldizkarian adierazitako esanen  
eta iritzien erantzunkizunik)

## Gure aurrekoek erabiltzen zuten enshera

**GOITIBEHERA.-** Mutikoen jostailua. Hiru oholez egindako triangelu egitura du. Hiru gurpil (normalian rodamientoak edo kojinetek) ditu, bata aurrean eta beste biak atzean. Aurreko ardatza mugikorra da eta hankekin eragiten zaio direkzioa aldatzeko. Aldapak jaisteko erabiltzen da. Lavan baten batek bultza egin behar du. "Goitibeheria, erruereaz, gero rodamentuakin... Elgetako kamiñuan behera, ris-ras!".

## ESKUTITZAK

### BAHAMONTESEN NAGUSITASUNA HAUTSI ZUEN

Gazterik hil zen, 69 urterekin. Txirrindularitzan ere gaztetatik nabarmendu zen, eta 19 urterekin "Tolodoko Arranoa"-ri gailendu zitzaion Bilboko Sari Nagusian (1961). Juan Jose Sagarduy-ri buruz ari naiz, joan zen urriaren 4an hil zena. Belaunaldi berriei, agian, ez zaie izena ezaguna egingo, baina kirol honen inguruan urteak darabagunontzat izen handia da Sagarduy. Galdakaon 1941ean jaiotako txirrindulari honek birritan irabazi zuen Arrateko Igoera, bata zaletu gisa 1960an, eta profesional moduan bestea, 1963an. Azken horretan, gainera, aurreko bost urteetan Arraten irabazi zuen Bahamontes berari nagusitasuna hautsi zion. Urte horretan beste 8 bider igo

zen podiumaren gailurrera; besteak beste, Eibarko Bizikletaren bosgarren etapa, sailkapen nagusia, Mendiko saria eta Erregulartasun saria bereganatu zituen. KAS taldean izan zen bost urteetan bikain jardun zuen, Arrateko Igoeran eta Eibarko Bizikletan nabarmentzeaz gainera, Etorkezuneko Tour-ean (1964. urtea) bi etapa eta Mendiko eta Erregulartasun sariak bereganatu zituen. 1969. urtean utzi zuen bizikleta, Karpy taldearen mallot-a defendatuz, aurrez Espumosos Gorbea eta KAS-ekin egin zuen bezala. Ordurako, bere palmaesak, hogeitik gora lehen postu zenbatzen zituen.

JOSE ARANBERRI (EIBARKO TXIRRINDULARI ELKARTEA)

## asteko HEMEROTEKA esaldiak

"Egun batzuk lehenago Espainiako gobernuko presidenteari egindako elkarrizketan, galdera bakoitzarekin, denborak urrea balio duela-eta, moderatzaileak erantzun laburra emateko eskatzen zion bitartean, handik egun batzuetara, 'herriaren printzesa' izendatutako bere etxeko kontuekin hiru-lau orduko programa eskaintzen zuen kate pribatu berberak. Zer pentsamendu inokulatu nahi dizkigu kate horrek? Pentsatzea debekatzearena, akaso?"

(Raimundo Fitero, telebista kritikaria)

"Oinarrizko giza eskubideak gehien errespetatzen dituen herrialdea da Kuba. Han egon naizenean, kubatarren bizimodua egin dut, Kubako soldata batekin, eta bizirik iraua daiteke. Ondasun asko subentzionatuak daude eta kalea zurea dela nabaritu dezakezu, ez agintariena. Kubako drama da, lehenengo mundu kulturaleko gizartea izanda, hirugarren mundu ekonomikoan bizi dela. Kontraesana badirudi ere, kulturak ematen dio askatasuna gizarte bati"

(Carlos Tena, kazetaria)



EIBARKO  
UDALA



GIPUZKOAKO  
FORU  
ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA  
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO  
SAILBURUORDETZA)



Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzako Kultur Sailak eta Kutxak diruz lagundutako aldizkaria

## a u t u a n

**LARRIALDIXETARAKO LAGUNTZAK**

Gizartekintza sailletik aditzera emon deskuenez, 2010eko Gizarte Larrialdixetarako Laguntasunak eskatzeko azken eguna eguaztena, urriaren 20xa izango da. Eskaeriak aurkezteko edo informaziño gehixagorako Portalera jua leike, 4. pisura.

**JUBILAUAK GERNIKARA**

Urriaren 25erako Gernikara txangua preparau dabe Untzaga eta Beheko Tokia jubilau etxietakuak, bertako azoka nagusixa ikusi nahi dabenandako. Urteeria 10.00etan izango da eta, azokan bueltia egiñ ondoren, Ereño auzoko Arita-Berri jatetxian bazkarixa egingo dabe, dantza eta guzti. Martitzenetik aurrera erosi leikez txartelak (18 euro bazkidiendako, 28 euro bestiendako).

**GRIPIAREN AURKAKO TXERTAKETA-KANPAIÑA**


Setienbreko 20xan hasi zan gripiaren aurkako txertaketa-kanpaiña hillabete honen 30ian amaittuko da. Urtero moduan, 65 urtetik gorakueri eta gaixotasun kronikuak daken personeri dago zuzenduta. Txertua jartzeko alde aurretik 943-032650 telefonora deittu bihar da eta ordua eskatu.

**Sindikatuak "pozik" grebaren oihartzunarekin**

**GIPIZKUAKO METALGINTZAKO BIHARGIÑAK EGUAZTENIAN EKIN ZETSEN** atzo eta gaur jarraipena izan daben zazpi eguneko greba deialdixari. Probintzia maillan 60.000 bihargiñeri eragitten detsen hitzarmena negoziatzeko eskatzen detse Adeg patonalari eta, honen horren aldeko jarrerarik ez dabenez erakusten, ELA eta LAB sindikatuak urrirako eta azarorako zazpi greba egun deitzeko erabagixa hartu eben oiñ hurrengo. Gaur Gipuzkua maillako manifestaziñua eguan deittuta Donostian eta atzo eta herenegun Eibarren, Tolosan, Beasaiñen eta Hernanin urten dabe kale-ara, protestan. Hurrengo deialdixak azaruaren 2, 3, 4 eta 5erako egin ditte.

**Nerea Azpiazu izango da ziñegotzi barrixa****AURREKO ASTEKO EGUENIAN PRESENTAU EBEN UDALETXIAN MIGUEL LÓPEZ DE GEREÑU ZANA ORDEZKATUKO DABEN LAGUNA:**

Nerea Azpiazu eibartarrak beteko dau aurreko hillian hil zan ziñegotziak lagatoko hutsunia, horretarako emon biharreko pauso guztiak emoten amaittu bezain laster. Miguel de los Toyos alkatiak eta Eneko Andueza Eibarko sozialisten idazkari nagusixak egindako aurkezpenian azaldutakuaren arabera, Azpiazuk urte mordua daroiaz UGT eta PSE-EE alderdixari



lotuta eta "beti laguntzeko prest" egon dala azpimarratu eben. Ogibidez medikua dan Azpiazuk,

bestalde, beragan ipiñi daben konfiantzia eskertzeko aprobetxau eban ekitaldixa eta pozik agertu zan bere herrixaren alde biharrian jarduteko eskindu detsen aukeriarengaittik. Ziñegotzi barrixak kargua hartu ahal izateko Junta Elektoralarekin tramitiak hasitta dagoz eta, gauzak aurreikusitta duguaz moduan juanda, datarren hillian plenuan izendapena egitteko moduan egongo dirala pentsatzen dabe.

**Aparkatzeko tokixa etara nahixan**

**MENDIGUREN Y ZARRAUA (VALENCIAGA) FABRIKIAK BETE EBAN TOKIXAN AUTOMOBILLAK APARKATZETOKI TOKIXA** laster preparatzeko asmua daka Udalak eta honen hasitta dagoz horretarako emon biharreko pausuak emoten: terrenuaren jabia dan Eibar Berri enpresixari lurra era-

biltzeko permisua lortzeko akordixuaren borradoria presentau zetsen aurreko hillian. Behiñ horretarako permisua lortuta, eta alde aurretik egindako estudixotik etara dituen datueri begira, oin momentuan ezertarako erabiltzen ez dan terrenuan 250 bat ibilgailurendako aparkamientua martxan


ipintzeko aukeria aurreikusten dabe agintarixak. Edozelan be, Errebalen egindakuaren bidetik, lurrari emondako erabilleria behin-behiñekua edo probisionala izango litzake, terrenua erosi eban enpresixak bertarako beste proiekturen bateri forma emon eta aurrera eruan bittartian.

**ELENA LARRARTE ZURUTUZAREN****1. URTEURRENA (2009-X-15)**

**Bere aldeko urteurren meza domekan, hilaren 17an egingo da, 11.00etan hasita, Azitaingo Jasokunde parrokan.**







## Zaratiari aurre egiteko mapia

**UDALAK MODU PROBISIONALIAN ONARTU DAU HERRIKO KALIETAN DAGUAN ZARATIARI AURRE EGITIA** helburu dakan mapia. Kontaminaziño akustiko modura ezagutzen dogun hori arazo haundixa da Eibarren ez eze beste herrixetan be eta, horregaittik, ingurumena zaintzeko plan guztietan arreta berezixa eskintzen detse gaixari. Legiak aurreikusten daben 30 egunetako epian jende aurrian, konsultatzeko moduan egon ondoren, alegaziñorik aurkeztu ezian planak aurrera egingo leuke, behin-betiko onartzeko. 2008xan ekin zetsen mapia egittiari, bestiak beste herrixan daguan zaratia toki diferentietan neurtuta. Toki batetik bestera zarata mailla kanbixatzen bada be, orohar herrixan daguan zaratia “*normalizat*” jotzen daben tartian daguala azaldu dabe. Horrekin batera, tallar asko herritik kanpora etaratzia eta trafikua zati bat bariantetik desbideratziak herri barruan oin dala urte batzuk baiño askoz be zarata gitxiago egotia eragin dabela azpimarratu dabe. Europako Batasunetik gai honen gaiñian agindutako araueri moldatzen juateko hainbat parametro betetzen juan bihar dira eta gure herrixa ez da salbuespena izango.



## Legarrerako pasabidia zabalik

**ASTEBURUAN ZABALDU EBEN EGO GAIN KALETIK LEGARRERA, TRENBIDE AZPITTIK** juateko pasabide edo tunel barrixa. Trenbidiaren beste aldian, Arrate-Bideko etxe barrixak egitten hasi ziranian, oin dala urte pare bat desagertu zan trenbide azpiko pasua eta, oiñ arte, Legarrera pasatzeko behin-behiñeko pasarelia erabili bihar izan da. Aurrerantzian horren premiñarik ez danez izango, behiñ-behiñeko pasarelia desmontatzia dago aurrerikusitta. Egunotan trenbide azpiko pasuaren inguruak txukuntzen dihardue eta, bestiak beste oiñezkuak kamiño barrira ohitzen juateko zebrabidia pinttau dabe.

## anzorik anzo



## San Andres desagertarazteko bidian

**Datorren urteko abuzturako San Andres pasialekuko etxietako batzuk botatzen hastia aurreikusi dabe, inguru hori barritzeko Udalak dittuan planeri jarraituta.** Proiektua ez da barrixa ezta gitxiago be, baiña hasieran pentsatzen ebena baiño luziagua dihardu izaten, bestiak beste etxietan bizi diranekin eta jabiekin ados ipintzeko arazua dituelako. Gaiñera, bost pegorari eragitten detsan proiektua da eta etxe guztiak ez dagoz egoera berian. Gauzak holan, oiñ arte pegoretako bik presentau dabe etxia eraisteko permisua lortzeko eskaeria: pegora bi izanda estruktura bera konpartitzen daben 6. eta 7. numeruak. Horrek bixak dira, hain zuzen be, datorren urteko udan desagertu leikiazten etxiak. 5. zenbakixan, barriz, zer egingo daben pentsatzen dihardue oindiok: etxia eraitsi ala, ostera, eraikiña barritu edo sendotzia. 4. zenbakixan eraikiña eraistia onartuta dago, baiña oindiok ez dabe horretarako eskaerarik presentau. Eta 3. zenbakixa, begibistakua dan moduan, oin dala urte batzuk goittik behera barriztatu eben eta, horregaittik, bere horretan daguan moduan segitzeko arazorik ez dau izango.


## eibar kaleka

### Karmen kalia

Barrena eta Urkizu batzen dittu Karmen kalia, Elgoibarko norantzan behera goiazela. Kalia bereziki luzia izan barik be, bertan daguzen eraikiñetako bik aittamen berezixa bihar dabe: numero bakoitixen aldian Urkizu herri ikastetxia dakagu eta pare-parian, bikoitixetan, Karmengo Amaren eliza (Karmelitak).

**Pegora kopurua: 9.**

**Eroldatutakoak: 446**



**asteko**  
**1.713**  
**datua**

langabetu dago herrixan, oin dala bost hillabete baiño 179 gitxiago. Debabarrenan, bestalde, 3.172 langabetu dagoz guztira. Zenbaki horretan, parekatu egin dira emakumien eta gizonezkuen kopuruak.


### Eguzki energixa eta teknologixa barrixak

Tekniker-IK4 partaide dan ATON proiektuaren testuinguruan, teknologixa fotoboltaiko barrixak aztertzeke jardunaldi berezixa egiñ eben Bilbon hillaren hasieran. Jardunaldixa Euskal Herriko Unibersidadeko Ingeniaritza Eskolan garatu zan eta bertan gaixaren inguruan gaur egunian biharrian diharduen enpresa garrantzitsuenetako ordezkariak egiñ eben bat. Aittatutako ATON proiektuak zelula fotoboltaikuetan oiñarritutako energixa sortzeke gauza diran teknologixa barrixak garatzia billatzen dau eta horretan dihardue Eibarko ikerkuntza zentruok.



### Eroskiko errotondia zabalik

**ASTELEHENIAN ZABALDU EBEN IPURUAKO EROSKI BARRIXAREN PAREKO BIRIBILGUNI-A**, hillebetietan itxitta egon ondoren. Merkatalgune barrixa egitteko biharrek eraginda, trafikua kanbixauta egon da: Romualdo Galdós kaletik zoian trafikua beheranzko bidia baiño eziñ eban hartu (Isasi edo Barrenenguara), kiroldegiruntz doian bidia moztuta egon dalako. Baiña astelehenaz geroztik Elgetarako bidia atzera be zabalik dago eta eraiki daben errotonda barritik igarota automobilak erregular dabiz. Inguruan bizi dan jendiak pozarren hartu dau barrixa, bidia moztuta egon dan denpora luzian buelta haundixa emon bihar ebelako (Valenciaga aldameneko karreteratik). Edozelan be, bidia trafikueandako zabaldu da-




ben arren, oiñezkuendako espaloiak prest egoteko piskatien gehixago itxoiñ egin biharko dogu. Azaruan Eroskiren denda barrixa poliki-poliki zabaltzen juatia dago aurreikusitta eta, horrekin batera, inguru guztia urbanizauta geratuko da.

### El Corte Inglés-ekoak pozik

**AURREKO BARIKUAN HERRI KIROLLEN INGURUKO ERAKUSTALDIXA ESKINDU EBEN** El Corte Inglés-ian, azaruaren 30era arte bertan ikusgai izango dan erakusketiaren inauguraziñuan. Ekitaldixa aprobetxauta, Eduardo Robredo Eibarko dendako zuzendarixak ixa urtebeteko ibilbidia egin daben zentruaren inguruko martxiari errepasua emon zetsan. Berak egindako baloraziñuaren arabera, San Andres egunaren bueltan lehelengo urteurrena beteko daben dendak *“oso emaitza onak lortzen dihardu eta gure erosiak fidelak dira, guk aurrera egittia nahi dabe”*.



Lanpostueri buruz berba egittian, *“egonkortasuna”* aittatu eban arduradunak: zuzenian dandan biharrian 350 lagun dagoz, baiña hortik kanpora, zeharka (garbitzaillak, seguridadia, arropen konponketak egitten...) beste askok diharduela azaldu eben aurkezpenian. Gauzak holan, datorren urterako Eibarko dendia finkatuta egotia aurreikusten dabe.



### Nagusixen presidente barrixa

**DEBABARRENEKO NAGUSIXEN KONTSEILUAK ATZO GOIZIAN AURKEZTU EBAN** aurrerantzian presidente kargua beteko daben laguna: José Antonio Arkotxak hartu detsa errelebia oiñ arte karguan egon dan Jesús Astigarragari. Alkartia 2007ko urtarrillaren 30ian jaixo zan eta egun horretatik gaur arte Astigarraga izan da presidentia. Atzoko ekitaldixan elkartiak eskerrak emon zetsazen Astigarragari, egindako bihar haundixagaittik eta, horrekin batera, Arkotxa presidente barrixari ongiatorriza emon zetsen.

**Etxola jatetxea**  
 etxolajatetxea@hotmail.com  
 Erreserbak: 943-207019  
 Txirio kale, 1

**Eguneko menua / Karta / Pintxoak**  
**Enpresa eta taldeentzako aurrekontuak**

**Radio Eibar**  
 C A D E N A  
**SER**  
**104,0 FM**



## Azaroaren 26an hartuko dute parte Danbakako Eibarko talde biak

Azaroaren 26an aurkeztu zuten Danbakako lehiaketako kontzertu guztiak izango diren Elgetako Espaloian edizio honetako nondik-norakoak. Iker Barandiaran Danbakako koordinatzailearekin batera, Iñaki Altuna Kutxa Gizarte Marketineko zuzendaria, Jaione Gartzia Elgetako Kutxako zuzendaria, Susana Azpilikueta MUko komunikazio arduraduna eta Gorka Arizmendiarieta Espaloia kafe antzokiko arduraduna

izan ziren. Bertan aurkeztu zenez, talde onenak diskoa grabatzeko aukera izango du eta Debagoieneko talde onenak bideoklipa grabatuko du; bestalde, ikusleendako sariak ere izango dira kontzertu bakoitzean. Sarrerak erosteko, hiru modu daude: telefonoz (943-250505), Espaloian bertan eta Goienako egoitzetan. Prezioa 5 eurokoa da (Gazte Kutxan, 3) eta sei kontzertuetarako bonoak 22 eurotan daude (Gazte Kutxarekin, 12).



Seafoid-ekoek folka, popa eta rock, hiru estiloetan egin dute ibilbidea musikan.



Txusters taldeak rock and roll-a lantzen du, batez ere, bere abestietan.

### URRIAK 22

**Black River (Oñati).** Metal core melodikoa.  
**Desprezio (Arrasate-Bergara).** Punk-rocka.  
**Lord Witch (Bergara).** Power metal eta heavy metal.  
**La-Tox (Bergara).** Elektronikoa.

### AZAROAK 5

**El Trio Calavera (Oñati).** Rumba.  
**Rock Privado (Oñati-Donostia).** Pop-rocka.  
**Front Malabar (Arrasate).** Rock powerera.  
**Ymotek (Abadiño).** Metala.

### AZAROAK 19

**Doctors Klub (Abadiño-Durango).** Rocka.  
**Rombos Negros (Bergara).** Punk-rocka.  
**Karpovian Project (Mutriku).** Rock-metal progresiboa.  
**Ezi (Oñati).** Rocka.

### AZAROAK 26

**Xarma (Ondarru).** Rocka.  
**Txusters (Eibar).** Rock-and-rolla.  
**Seafoid (Eibar).** Folk, popa eta rocka.  
**Scam (Aretxabaleta).** Rocka.

### ABENDUAK 17

**Dark Code (Bergara).** Death metal melodikoa.  
**Kubers (Soraluze).** Pop-rocka.  
**Asfiksia (Oñati).** Heavy-rocka.  
**Industria Dolor (Arrasate).** Musika industrialia.

k  
o  
n  
t  
z  
e  
r  
t  
u  
a  
k

BANESLE NAGUSIA



**kutxa**  
gazte

LAGUNTZAILEA



**m**  
MONDRAGON  
UNIBERTSITATEA

HEGABIDE LAGUNTZAILEA



ANTOLATZAILEA





**DANBAKO**  
www.danbaka.com



*Sasoi batekin konparatuta, gero eta lehenago hasten dira eskolan gaur egungo umiak. Oin dala hamarkada batzuk, jendia bost urterekin eskolara lehelengo bidar juaten zan moduan, ixa etxetik urten barik egon ostian, gaur egun zailla da halakorik: lehelengo haurtzaindegira eta gero eskolan, sozializaziñua da nagusi.*

## Zeiñ adiñ ikusten dozu egokixen umia eskolan hasteko?



**VICENTE ALBERDI**  
63 urte  
grabadoria

Hiru urterekin hastia ondo begittantzen jata. Umiak beste ume batzuekin ibilli bihar dira, holan sozializau eta beste balixo batzuk jaso ahal deixen.



**NATALIA ATXA**  
40 urte  
irakaslia

Oin dagan moduan ondo ikusten dot: bi urterekin adiñ egokixa dala usten dot. Beste ume batzuekin relazionau, apur bat independizau eta ama edo gurasuekiko loturia beste modu batian bizitzeko balixo dabela iristen detsat.


**ASIER MATUTE**  
30 urte  
tornerua

Bi urterekin hastia ondo begittantzen jata, beste ume batzuekin relazionatzeko balixo dabelako. Badagoz etxian eskolak emotia nahixago dabenak, baiña ez dot ondo ikusten, ez jata naturala begittantzen.



**MALU MONASTERIO**  
63 urte  
etxeoandria

Bi urterekin ondo ikusten dot; adiñ ona begittantzen jata. Umiak umiekin ibilli bihar diralakuan nago, sozializatzeko balixo dau-eta. Batzuk etxian emoten detse eskolak eta nik hori ez dot ondo ikusten, ez jata gustatzen metodo hori.



**Helbidea**  
**URKIZU PASEALEKUA, 13**  
**Orbeako dorreetako**  
**1. solairua**

**EIBAR**

**CENTRO MEDICO - OSASUNDEGIA**

☎ **943 12 02 00** Fax: **943 12 02 04**

1 Kardiologia	8 Pediatria
2 Zirugia	9 Psikiatria
3 Dermatologia	10 Radiologia
4 Dietetika eta Nutrizioa	11 Traumatologia
5 Análisi Klinikoak	12 Barne Medikuntza
6 Ortodontzia	13 Koloproktologia
7 Otorrinolaringologia	14 Erizaintza
	15 Zoru pelbikoaren errehabilitazioa

**BERRIA:**  
**Foto-depilazio Unitatea**

**Mª ANGELES ELIZBURU LARREATEGI**  
**I. Urteurrena**  
**(2009-X-17)**

**Dana emon dozulako, irribarre batez gogor eutsi detsazulako, zu maitatzia haiñ erraza izan dalako, AHAZTEZIÑA IZANGO ZARA DANONTZAKO.**

**Bere aldeko urteurren meza domekan, hllaren 17an egingo da, 12.00etan, San Andres parroklan.**

# ...eta kitto!-ren bazkidiak bat egingo dabe II. Bazkide Jaixan

Urriaren 23an, zapatua, dake zita ...eta kitto!  
Euskara Elkarteko bazkidiak, Armeria Eskolan  
ospatuko dan Jaixan. Bazkidien arteko harremana  
zaindu, hobetu eta bat egittia helburu dakan  
jaixak, adin guztiak hartuko dittuan egun osoko  
egitaraua eukiko dau.

**E**guardiko 13.00ian ekingo  
detsa ...eta kitto! Euska-  
ra Elkartiak II. Bazkide  
Jaixari. Piskolabisakin egingo  
jakue ongietorrixa bazkidieri,  
eta antolatzailliak aditzera

emon deskuenez, "hortik aurre-  
ra ez da aspertzeko denporarik  
egongo. Egun osuan egongo  
da zer egiñ eta zer ikusi,  
umientzat zein helduentzat".  
Eguardixan tailarrak eta puzga-



## NEREA ARIZNABARRETA, Zurrumuru antzerki taldeko kidea

### "Etorri bazkide eta lagunak, ondo pasatuko duzue-eta!"

Oin urte bi egin zebe moduan, aurtengo Bazkide Jaixan be gure artian izango dittugu  
Zurrumuru antzerki taldeko kidiak. Oinguan zirko-eskolarekin etorriko dira, etxeko  
txikixenen gozamererako. Nerea  
Ariznabarreta da taldeko kidieta bat.


**- Zer topauko dabe zirko-eskolara gertura-  
tzen diran umiak?**

Jolasteko gauza mordo bat egongo da: mala-  
bariak, ohe elastikua, gaiñian jartzeko pilota  
haundi bat... Esperimentatzeko tailarra izango  
da, gauzeekin eta gorputzak in esperimantatze-  
kua. Akrobaziak egitteko teknika batzuk be era-  
kutsiko detsegu.

**- Zein izango da zuen funtziñua?**

Zirkuituak txoko ezberdiñak eukiko dittu eta  
txoko bakoitzian gutako bat egongo da umieri  
azalpenak emoten. Guk erakutsiko detsegu tra-  
mankulu bakoitzak zertarako balixo daben, zir-  
kuitua erabilgarrixagua izan dadin.

**- Zelan animatuko zenuke jendea Bazkide  
Jaixan parte hartzera?**



Oso egun politta izaten da, ondo pasatzekua.  
Danori gustatzen jakuzen gauzak egongo dira  
gaiñera: bazkarixa, sobremesia, karta-jokuak,  
dantzia, umientzako gauza mordua... Etorri zai-  
ttie bazkide eta lagunak, ondo pasako dozue-eta!

rrixak egongo dira txikixenen-  
tzako eta nagusixak futboliñian  
jarduteko aukeria eukiko dabe  
aurten be. 14.00xetan taldeko  
argazkixa atarako da eta jarrai-  
xan bazkarixa: "Gastrobaska-  
ren eskutik bazkalduko dogu  
aurten be. Nagusixak paellia,  
masailla eta etxeko tartia euki-  
ko dabe eta umiak, makarroiak,  
solomua eta izozkixa".

#### Zirko-tailarra umientzat

Bazkal ostian jaixak jarraituko  
dau. 16.00etan txikixenen  
txandia izango da, eta Zurru-  
muru antzerki taldiaren esku-  
tik zirko-tailarrak gozatzeko au-  
keria izango dabe: "Zirkuan  
erabiltzen diran tramankuluak  
egongo dira umien eskura. Eu-  
rak probatu eta erabili ahal




**San Andres  
Gozotegia**

- **tartak**
- **enkarguak**
- **etxera**

**Bidebarrieta, 28**  
☎ 943 20 79 73



izango dittuzte, eta zirkoko kide sentittuko dira". Hori amaitzian, puzgarrixak eta tailarrak mar-txan jarriko dira barriro be.



Oin dala urte bi moduan, mus eta futbolin txapelketia, zirko-tailarra eta puzgarrixak eta dantzan egitteko aukeria izango da. **SARRERAK EROSTEKO AZKENENGO EGUNA DATORREN EGUAZTENA IZANGO DA.**

### Musika DJ-arekin

Umiak puzgarri eta tailarretan dabizen bittartian, musikiak girotuko dau arratsaldia. Beato DJ-ari esker, bazkarixa bajatu eta gorputza mobitzeko aukeria eukiko dau nahi dabena. Eta dantzaldixarekin batera, "futbolin eta mus txapelketak jarriko dittugu martxan. Bi futbolin-mahai ekarriko dittugu aurten be, eta bikotien arteko norgehiagokak antolatuko dittugu. Horrez gain, kartetan egin nahi dabenantzako,



mus txapelketia egongo da. Irabazliantzako, gaiñera, oparixak egongo dira, txapelak museko irabazliantzak, eta Eibar foball taldeko jokalarixak siñatutako baloi bana futbolin txapelketako irabazliantzako". Oin bi urte bikote morduak emon eban izena txapelketetan eta nor baiño nor, giro zogarrixia sortu zan Armeria Eskolako frontoian.

### Bazkide eta lagunak

Oiñ urte biko giro ezinhobia gaintzitia nahi dau Elkartiak eta horretarako bazkide guztiak gonbidatu nahi dittue: "Bazkidiak ez eze, bazkidiak lagunak be etorri leikez jaira. Atiak zabalik dittugu bazkidiak lagun eta senitartekuentzako be. Oin dala urte bi ekin zetsagun bidiari, gure bazkidiak al-kartu, alkar ezagutu eta bat egitteko asmuarekin, eta bide horri eutsi nahi detsagu aurten be". Sarrerak salgai dagoz honetzeko ...eta kittedo buleguetan (Urkizu 11, solairuarta). Nagusixen sarrerak 22 eurotan daude salgai, eta umienak, bar-ritz, 17 eurotan.

**66553**  
...eta kittedo-ko  
**GABONETAKO LOTERIA**

Loteria Nacional

**salgai duzu:**  
Mujika harategia  
Urkizu prentsa  
Bofintxo  
Zabaleta okindegia  
Narrua konplementuak  
San Andres gozotegia  
Askasibar kirolak  
Kultu taberna  
Valenciaga jantzidenda  
Udal Euskaltegia  
AEK Euskaltegia  
Isasi okindegia  
Izadi loradenda  
Untzaga prentsa  
Dibutek fotokopiadenda  
Zubi-Gain kafetegia  
Bankoa  
...eta kittedo!

**Loteria hartzailen artean, abenduaren 15ean GABON-OTARRA zozketatuko da**

**IGOITZA NAGUSIA**  
Bilbarrizeta 20 - beheko eskuma

**FUNERARIA MUGICA**

**Tanatorio Crematorio del Bajo y Alto Deba**  
Tanatorio eta Errousketa labea  
Egoibonak (Signo polygonal)  
Partikular, mitua eta osegun ezker zerbitzuak  
Koroak - Eskelak - Urteurrenako eskelak  
Euskal Herri osoko ospitaleen hartzer zerbitzu  
Nazio eta Nazioarteko itzalgoak

**Mugica Ehorzketa**  
Funeraria Mugica

**TELEFONOA (24 ORBU)**  
**943 201 951**

## Dentistak

odontologia  
biologikoa eta orokorra  
terapia neurala

**miren albistegi sojo**

HELBIDE ETA TELEFONO BERRIAK

Errebal, 14  
t. 943 201 721


T. Anitua 16, behea  
Tel. 943 20 73 57

**AMAIA**

**HORTZ KLINIKA**

**ARAT** Hortz Klinika

Hortz-osasuneko  
profesional taldea  
zure zerbitzura



Hortz, konpaleia eta  
konkilio hantekin  
Hundelako kontrola...

PREBENTIBOAK - Tel. 943 20 18 51

**m bista eder**



Infiarreak  
gazteku egiten gaitu

Inplante eta  
Hortz-Estetikak  
edukiak

Bista Eder, 19 - behea -EIBAR-  
943 70 00 82 / 943 20 84 75

**Pedro Etxeberria Gisasola**  
**DENTISTA**

09.00etatik 13.00etara eta 15.00etatik 20.00etara  
**EGUNERO**

Calbeton 19 - 3. esk.

Tfnoa: 943 20 72 17



**GASTESI**

Hortz-Klinika  
Jesus M<sup>a</sup> Gastesi - Ane Gastesi

Odontologia orokorra / Ortodontzia  
Inplanteak / Laser Teknologia

Bidebarrieta, 10-2. eskuina 943 70 00 90

RPS 04/02



**IRAZABAL**  
clinica dental

Julian Etxeberria, 12 - 1. esk.

Tel. 943 208552

A. Zulueta, A. Murillo eta S. Sierra DOKTOREAK

ZERBITZUAK: Ortodontzia - Protesiak - Inplanteak  
Hortz-Estetika - Haurrentzako Tratamendua

# OSASUN

**BEGOÑA IZAGIRRE MENDIKUTE**  
**DENTISTA**

Untzaga 5 - 4. .... 943 70 23 85

**EGUNERO**



**invisalign**  
Ikusten ez den ortodontzia

**Ortodontzia  
ume eta  
helduentzat**

**M<sup>a</sup> Dolores Olaizola Doktorea**

**EIBARKO ZENTRO MEDIKOA**

Urkizu, 13 (Orbeako Dorreak)  
Telf.: 943 120 200 - 943 425 706  
www.marladoloresolaizola.com

**MIGUEL SEMINARIO**  
**ZURIARRAIN ODONTOLOGOA**

RPS 336/05

Odontologia orokorra  
Ortodontzia  
Inplanteak

**Bidebarrieta, 7-1. esk. 943-702896**

**UNTZAGA**  
**hortz-klinika**

**egunero**

Untzaga, 2 - 1. Eskuma  
Tfnoa. 943 70 25 92

## Errehabilitazioa

**CRF AMOSTEGI**



**ERREHABILITAZIOA**

- \* Fisioterapia /  
Errekuperaketa funtzionala
- \* Logopedia
- \* Inkontinenzia urinarioak
- \* Kirol medikuntza
- \* Ama izateko prestakuntza

Muzategi 2 (EIBAR) San Ignacio 2 (ELGOIBAR)  
Tfnoa. 943 20 34 46 Tfnoa. 943 74 33 74

*Patronato*  
*Eibarrés*

**Errehabilitazioa**  
**eta Fisioterapia**

ZENTRUKO SENDAGILEA: Ibarra doktorea

**Urkizu 9 - behean**

**EGUNERO (08.00 - 19.30)**

Tfnoak. - 943 12 12 80 eta 943 12 03 58  
Faxa - 943 12 03 58

patronatorehabi@terra.es

## Estetika klinika




- Barizeak
- Kirurgia Estetikoa
- Dietetika eta Nutrizioa
- Gorputz Birmoldaketa
- Fotodepilazio Medikoa

**abontza**  
clinica estetica

Egungoan, 6. behean - Tel.-Fax. 943 906 044  
www.clinica-abontza.com

**Hemen zure tokia  
izan nahi baduzu  
deitu 943-206776  
telefono zenbakira**





# GGDA

## Fisioterapia




**ANE MENDIA**  
970 Kolegiatu zbkia.  
ARRAQUETA, 20  
T.F.: 943 53 06 42  
ane\_mendia@hotmail.com

**FISIOTERAPIA ZENTRUA**



**FISIOTERAPIA**  
ENEKO MAILAGARAI OSTEOPATIA  
901 kolegiatu zbkia. NEUROLOGIA  
NEURO-ESTIMULAZIOA  
S. Agustín, 2-4 - M. lokala Tel. 622 14 58 58



**Manu Sánchez FISIOTERAPEUTA**  
- fisioterapia  
- osteopatia  
- errehabilitazioa  
Juan Gisasola, 14  
Telefona: 943 12 70 78

## Okulistak



**JOSE ALBERDI**  
ARRATSALDEZ  
San Juan 11 - solainurtea  
943 20 19 82



**Clínica Oftalmológica RECALDE**  
Oftalmología Clínica  
Plaza Barria, 2 - 2º  
Tfnoa.: 943 201 844  
www.clinicarecalde.com

## Podologoak

- Kiropodiak, gogortasunak eta kailuak
- Atzazkal orbainduak
- Oinazpiko garatxoak (papilomak)
- Plantillak



**ELENA AIZPUN**  
**PODOLOGOA**  
124 kolegiatu zenbakia  
**HELBIDE BERRIA**  
T. Etxebarria (DOS DE MAYO), 5 - 1. A  
**943 12 14 93**



**BIDEBARRIETA, 48**  
**EIBAR**  
943 203050  
**ERDIKO KALE 54**  
**ARRASATE**  
943, 799746  
**PODOLOGOA**  
**Etxe Berria**  
Nerea Arregi (123 Kolegiatu zbkia.)  
Rosarito Rodriguez (125 Kolegiatu zbkia.)  
Amagoia Zubizarreta (122 Kolegiatu zbkia.)



**PODOLOGOA**  
**Mainer Lopez Etxebarria**  
**Arragueta 2 Bis-B, Behea C**  
**Tfnoa. 943 82 04 88**  
65 Kolegiatu zbkia.



**PODOLOGO**  
T. ORTOPEDICO  
**Iñaki Rivero Zabaleta**  
**Calbeton, 4 - 2.**  
**(Untzagako dorrea)**  
**Tel. 943 20 86 41**

## Psikologoak

**AROR**  
PSIKOLOGIA - LOGOPEDIA  
----- (Ume eta helduendako) -----  
**Ana Artamendi eta Beatriz Ortueta**  
- Afasiak - Dislexiak  
- Disfoniak - Hizmoteltasuna  
- Dislaliak - Eskola arazoak  
- Degluzio atipikoa  
T. Etxebarria 10 - 6. ezk. (EIBAR) Tel. 943 20 27 15  
Artekalea 30 - 2. B (DURANGO) Tel. 94 681 90 79

**UME ETA HELDUENDAKO**  
**PSIKOLOGIA**  
**KABINETEA**  
**Arrate Garitaonandia**  
**HAUR, NERABE ETA HELDUENTZAKO**  
**TRATAMENDUAK**  
**Bidebarrieta, 27-B (3. ate) 943 20 22 66**  
**a\_garitaonandia@terra.es**

**Psikologia klinika eta**  
**Psikoterapia zentroa**  
**Ψ**  
**Oscar Mondragon Lili**  
**Urkizu, 13 - behea**  
Telf. 943 206823 eta 686 859023

## Radiologia

**MADINA**  
**RADIOLOGIA**  
- Mamografiak  
- Dentsitometriak (osteoporosi ikerketa eta balorazioa)  
- Hertz-scanner 3D-etan (implanteak ezarri aurreko hezur baloraziorako)  
**TRAUMATOLOGOAK: Azkarate eta González Bosch doktoreak**  
**TRATAMENDUAK** hazkuntza faktoreetan aberatsa den plasmarekin  
**Toribio Etxebarria, 4 - 1. ezk. 943-202857**

## Eibarrek Peña Sport hartuko du domekan 17.00etan

**AURREKO ASTEBURUAN TAXOAREN BESTE TALDE NAFARRA GARAITU** eta gero, plenoa egin nahiko dute Mandiolaren mutilek domekan Peña Sport taldeari irabaziz. Ipurua etorriko den taldea sailkapeneko erdialdetik behera dago; hala ere, kanpoan jokatutako neurketetan, Barakaldon irabazi zuen eta Mirandan

berdindu. Eibarko taldearentzat hiru puntu garrantzitsu dira domekakoak, batez ere Torrelavegako Gimnastikarekin lidergoan duen borrokari dago-kionez.

Superligako nesken taldeak ordura arteko multzoko liderraren Lagunak-ekin berdindu ondoren, Real Sociedad lider berriaren zelaian jokatuko du.



Reala izango du aurkari Eibarrek Superligan.

## Lau eibartar squash-eko Euskal Ligako Arrasateko proban

**GAUR ETA BIHAR JOKATUKO DA ARRASATEN SQUASH-EKO EUSKAL LIGAKO ZIRKUITOKO PROBA BERRI BAT** eta, euskal ranking-erako baliagarria izango den lehiaketak 41 parte-hartzaile izango ditu. Jon Arana, Jon Losada eta Alberto Ferreiro eibartarrek eta Debako Sergio Salgadok osatuko dute Eibarko Klub Deportibotik joango den ordezkariak. Ferreiro torneoko 2. buru izango da, baina finalera iristeko ez du bide errazik izango, ranking-eko hamar onenetik zortzi izango baitira bertan.



## Olaberria Espainiako pista txapelketan



**AURTEN DEBABARRENA-KIROLGIREN MAILLOTA JAN-TZI DUEN** Leire Olaberria txirrindulariak egun bereziak izango ditu hemendik aurrera. Bihar hasiko dira Mallorcako Palma Arenan open pistako Espainiako txapelketak, 'omnium'eko

sei probetatik hiru egun berean jokatuta. Azken Mundialean domina eskuratu zuen Olaberria da irabazteko hautagai nagusia, Débora Gálvez eta Ana Usabiagarekin batera; ikaztegi-tarrak bederatzitik txapelketatik zazpitan hartuko du parte.

## Debabarrenak 4na berdindu zuen

**ARETO-FOBALLEKO TALDEAK PARTIDURIK GALDU GABE** jarraitzen du; oraingoan garaipenak ihes egin zion, baina kanpoan jokatzen zuela ikusita, emaitza ontzat jo behar da. Piruk hiru gol sartu zituen eta Imanolek bestea. Asteburuan Eibarren jokatuko du.



## Herriko pilotariak: bikote bakarra etxean eta bost kanpoan

**GAUR, 20.15-ETAN HASITA, GIPUZKOAKO KLUBEN ARTEKO TXAPELKETAKO PARTIDUA** jokatuko da Astelenan: Azpilikueta-Andonegi eibartarrak Errenteriako bikotea izango dute aurrez-aurre. Deportiboko beste bost taldek kanpoan jokatuko dute asteburu honetan: kadeteen bikotea Elgoibarren izango da, jubenilena Ikaztegi-tan, senior mailako bikote biak Ibaetan eta Narbaiza infantila Bergaran saiatuko da irabazten.



## Arrate diruz larri, jokoz espero baino hobe

**EGUTEGI BEREZIARI JARRAITUZ, ARRATEK GAUR IZANGO DU PARTIDUA** Ipuruan eta sailkapenean euren atzetik dagoen Antequera izango dute bisitari, 21.00etatik aurrera. Julian Ruizen taldeak ezustekoa eman zuen Logroñon eta Naturhouse garaitu zuen (28-29), ia partidu guztian eki-

menaren jabe izan ondoren. Baina badu arazo larriagorik Eibarko taldeak eta, horrela, ale hau inprentara bidean zegoela, taldeko teknikari eta jokalariek prentsaurrekoa ematekoa ziren gaur egun bizi duten egoera azaltzeko eta taldeak Asobal Ligan jarraitzeko dituen aukerak zehazteko.

## Mendi taldearen urteko batzarra

**EGUAZTENEAN, HILAREN 20-AN, EGINGO DA KLUB DEPORTIBOKO MENDI BATZORDEAREN URTEKO BATZARRA.** Bile-  
ra 19.30etan hasiko da eta hor  
erabakiko dira datorren urtean  
egin beharreko ekintzak; horrez  
gain, egoera ekonomikoa ere az-  
tertuko da eta badirudi ez dakigu  
zenbat urtetan taldearen ardura  
eraman dutenak lekukoa pasatu-

ko dietela eurak baino urte batzuk  
gutxiago dituzten beste mendizale  
ekintzaileei.

Bestalde, aurreko zapatuan haur  
eta gurasoentzako Urbiara igoera  
izan zuten. Eguraldi txarraren ozto-  
poei aurre egin zieten, behin Ur-  
biara igota fondan egotea tokatu  
bazitzairen ere. Azaroaren 13an Ur-  
kiolara egingo dute antzeko irteera  
eta abenduaren 18an Xoxotera.



Berogailua ere ipini dute Astelenan egindako azken konponketen artean.

## Pilota profesionalaren denboraldi hasiera Astelenan

**UDAZKENAREKIN BATERA, ASTELENA FRONTIOAK ATEAK ZABALDUKO DIZKIO PILOTA PROFESIONALARI.** San Juan jaiak arte iraungo duen denboraldiko lehenengo jaialdiak honako karteldegia izango du: Merino II.a vs Gorka; González-Laskurain vs Aritz Lasa-Pascual; eta Cabrerizo II.a-Larrinaga vs Ongay-Arruti. Hasieran lau eta erdiaren barruko Barriola eta Saralegiren artekoa zen jokatzeakoa, baina Barriola min hartuta dagoenez, hurrengo astebururako laga da neurketa. Jakina denez, jaialdia 17.00etan hasiko da.

## Larreategik eta Barasoainek marka ezarri dute Amorebietarekin


**MAILA NAZIONALEKO 482 TALDETIK, AMOREBIETA ZEN BAKARRA JOKATUTAKO PARTIDU GUZTIAK IRABAZTEN;** ez hori baka-

rrik, golik jaso gabe zegoen sei jardunaldi jokatu ondoren. Baina, zapatuan Zarautzen jokaturako partiduan, epaileak agindutako penalti batek moztu zuen Barasoainek entrenatzen duen taldearen ibilbide ezin zuzenagoa. Bizkaiko taldean dihardu jokatzen Jon Larreategi eibartarrak eta, defentsan maila onean jarduteaz gain, berak sartutako gol batekin irabazi zioten Elgoibarri.



## Ipuruako gimnastak Zaragozako Pilarika torneoan


**INFANTIL MAILAKO TALDEAK LAN HOBEA EGIN ZUEN SENIOR MAILAKOAK BAINO;** hala ere, aipatzekoa da azken hauek prestatutako ariketaren ikusgarritasuna, eginahal hori perfektionatzen doan neurrian merezitako saria jasoko baitute. Noelia Bedia, Irati Yarza, Cristina Alegría, Maria Egaña eta Maria Fernándezek osatutako boskoteak 2. postua eskuratu zuen infantiletan, Alaia talde nafarraren atzetik; Olatz Ibaibarriaga, Carmen Gamundi, Olatz Laskurain, Irati Alonso eta Jone Pérezek osatutakoak, bestalde, 5. postuan konformatu behar izan zuen, lehenengo pasean kale egin ondoren. Asteburu honetan ez dira lan faltan izango, bihar Logroñoko torneoan jardungo baitute eta etzi Hernanin jokatu den Gipuzkoako txapelketan.



## FELISA ELORZA ANSOLA

*2010eko urriaren 8an hil zen,  
74 urterekin*

Familiaren izenean, eskerrik beroena gure nahigabeen lagundu diguzuen guztioi eta hileta-elizkizunera joan zinetenoi.



## Euskararekiko jarrera eta motibazioak lantzen



### GURASOENDAKO HITZALDIAK PORTALEAN

18an, 18.30etan  
euskaraz  
25ean, 18.30etan  
gaztelaniaz

**EUSKERAREN ERABILERA SUSTATZEKO ARDURAK BULTZATUTA**, aspalditik dabil lanean ...eta kitto!-ko Normalizazio arloa. Sortutako programen barruan, aipatutako asmo hori sustatzeko ekintzak bideratzearenak garrantzi handia izan du eta, orainoan, *“zeozer teorikoagoa eskaini nahi izan dugu,*

*batez ere motibazioa pizteko”*, dio Ainara Labado proiektuaren arduradunak.

### Txikitasunean haundi?

Izen horren inguruan laburbildu dituzte “XXII. mendea gure esku” eta “Euskararekiko jarrera eta motibazioak” hitzaldiak. Labadoren hitzetan, *“lehenengo hitzaldia 12 urtetik gorakoentzat da, batez ere, eta tailerretan ere landu daiteke”*. Bigarrena, jarrera eta motibazioena, da orain arte eman dena: *“Ikasturtea hasi aurretik, oportunitate bueltan, eskaini genien irakasleei eta jarraipen handia izan zuen”*. Han izandako 121 irakaslek oso balorazio

positiboa egin zuten hitzaldiaren inguruan. Hurrengo astelehen bietan, hilaren 18an euskaraz eta 25ean gaztelaniaz, bietan ere Portalean eta arratsaldeko 18.30etan hasita, *“hitzaldia gurasoei eskainiko zaie, euren jarrerak garrantzi berezia duelako, batez ere ume txikiak dituztenen kasuetan”*, dio Ainarak. Hizlariak formula magikorik ez dagoe-la aitortzen du, baina bai *“hausnarketara eragin eta gure jokabidea aldatzen lagundu”*.




Azken datuak erakusten dutenez, gure herriaren kasuan *“%48k euren etxetik euskara ez dakiela eskolaratzen da, beste %36 bakarrik euskara dakiela eta beste %16 hizkuntza biak dakizkiela”*. Datu hauek eskuan, ekimenak Udal Euskara Zerbitzua- ren bultzada izan du. Labadok dioenez, *“jarrerak lantze aldera, prestigioa eta statusa landu behar ditugun moduan, motibazioaren alorrean integrazioa eta funtzionalitatea landu behar ditugulako”*.



## Ego Ibar zine kluba bueltan

**DATORREN ASTEAN EHINGO DIO EGO IBAR ZINE KLUBAK ASTEROKO PROIEKZIOEI**, Philippe Lioret zuzendariaren “Welcome” pelikularekin. Vincent Lindon, Firat Ayverdi, Audrey Dana, Derya Ayverdi eta

Thierry Godard protagonista dituen filmak maitasun istorio bat dauka abiapuntu: lan kontuengatik Ingalaterrara joan den neska lagunaren atzetik joateko atzean lagako du Kurdistan iraniarra protagonistak. Etorकिन errealitatera gerturatzeko tarte emango duen filma 2009koa da eta hainbat sarirako izendatu zuten zine jaialdi garrantzitsuetan. Hezkuntza Esparruan emango da, 17.30etan eta 21.00etan, eta sarrerak euro bi balio du.



## Novatt-en “kaos-a” Alfa Arten

**JEDD NOVATT NUEVA YORK-EKO ESKULTORE HANDIAREN “CHAOS PAMPLONA” LANA** dihardute sortzen Eibarko enpresan. Eskultoreak 2005etik du harremana Alfa Artarekin eta orain arte 15 obra landu ditu hemen, tartean azken aldi egin dituen “Chaos” seriearen hainbat eskultura: “Chaos Vascos”, “Chaos San Sebastian”, “Chaos Gernika” eta “Chaos Mundaka”rekin batera, baita “Chaos Eibar” ere.



Novatt, bere lanaren aurrean.

## Orozen koadroak Durangon ikusgai

**ESTEBAN OROZ ARTISTA EIBARTARRAK GAUR ZABALDUKU DU ERAKUSKETA** Durangon, Ezkurdiako Udal Aretoan (Ezkurdi, 1). Hilaren 24ra arte egongo dira ikusgai Orozen hainbat koadro, astegunetan 18.00etatik 20.00etara eta zapatu eta jai egunetan, berriz, 12.00etatik 14.00etara eta 18.00etatik 20.00etara.



## Haitiri buruzko hitzaldia


**JOSÉ LUIS SOTO (DOMINIKAR ERREPUBLIKA) ETA LISA ANDRE (HAITÍ) KAZETARIEK** hitzaldia emango dute Portalean hilaren 19an, urte hasieran Haitín gogor jo zuen lurrikararen eraginez herrialdeak gaur egun bizi duen egoera azaltzeko asmoz. Hizlari biak Dominikar Errepublika eta Haití-ren arteko harremana bultzatzea eta herrialde bietan gizarte aldaketa gertatzea helburu duen Espansular taldeko kideak dira eta, Eibarren ez ezik, Gipuzkoako beste hainbat herritan eskainiko dituzte hitzaldiak hilaren 14tik 24ra bitartean, Donostiako Elizbarrutiko Misiok, Herriak Elkarlanean elkarteak eta Ertamerikako herrialdean beharrezko diren Mesedeetako Ahizpen Kongregazioak martxan ipinitako sentsibilizazio kanpainaren barruan. Izan ere, urtarilaren 12ko lurrikararen ondo-



rioz 200.000 lagun hil eta beste milioi bat inguru etxe barik geratu ziren eta oraindik ere nazioarteko laguntzaren premia daude. Egoeraren larritasunaz jardungo dute hizlari biek, 19.00etatik aurrera areto nagusian emango duten hitzaldian.

## Deporreko argazkilarien lanak nonahi

**KLUB DEPORTIBOKO ARGAZKILARITZA BATZORDEAK HILABETE OSOAN IKUSGAI EGONGO DIREN ERAKUSKETA BI** antolatu ditu:



urria amaitu arte Mateo Guilbert-en Bardeetako irudiak ikus daitezke Portalea Tabernan eta El Ambigú tabernan, berriz, Xaquín Rosales-en argazkiak daude ikusgai. Bestalde, Eibartik kanpo ere herriko argazkilarien lanak ikusteko aukera dago: urriaren 20ra arte José Luis Irigoienek Vietnameko argaz-





kiekkin osatutako erakusketa egongo da martxan Gi-

puzkoako Argazkilaria Elkartearen egoitzan (San Juan, 27), Donostian; Mikel Orozkoren "Berlin in Furs" argazki erakusketa, berriz, hilaren amaiera arte Durangoko Artea liburudendan (Artekale, 20) ikusteko moduan izango da; eta barixakuan inauguratu zuen erakusketa José Luis Martínez argazkilaria Debako Turismo Bulegoan, Portugalen hartutako irudiekin. Hilaren 17ra arte egongo da zabalik azken erakusketa hori.

## Armagentzaren industria hizpide

**JOSÉ MARÍA PELÁEZ VALLE EIBARREN IZANGO DA HILAREN 20-AN, EIBARKO ARMAGENTZAREN MUSEOAK** antolatutako hitzaldia ematen: "La secular industria armera vasca, éxitos y desencuentros con el poder". Vigoko Uibertsitateko irakasleak urteak eman ditu armagentzaren industriaren inguruan ikertzen eta, gaur egun, sektoreko aditu nagusien artean dago. Peláez-ek armagentzaren industriari buruzko hainbat liburu eta artikulua eman ditu argitaratu. Hain zuzen ere, "La Armería Vasca de lujo en el siglo XIX" bere liburuetako bat aurkeztu izan zen Eibarren 2006an.



**BARIXAKUAN HASI ETA HILAREN 17-RA ARTE ALICIA ITURRIOZ MARGOLARI EIBARRAREN** margolanak ikusteko aukera izango da Topalekuan, Arrate Kultur Elkartearen erakusketa are-

## Alicia Iturrioren erakusketa Topalekuan

toan (Zuloagatarren, 3). Erakusketa ohiko ordutegian egongo da zabalik: astegunetan, 19.00etatik 21.00etara eta zapatu eta jaiegunetan, berriz, 12.00etatik 14.00etara eta 19.00etatik 21.00etara.

## laburrak

### Umeendako antzeztan

Nat Nus dantza taldearen "Momentari" ikuskizunarekin gozatzeko aukera izango da bihar Coliseoan, 17.00etatik aurrera (sarrerak 4 eurotan salgai daude). Claudia Moresok eta Toni Mirak zuzenduta, dantza eta antzerkia batzen dituen ikuskizunak Tari izeneko pertsonaia bitxiaren gorabeherak azalduko dizkie ikusleei.

### Usartza eta Kezka

Txistulari taldea sortu zela 75 urte bete direla ospatzeko, Usartzak hainbat emanaldi berezi eskaintzen dihardu eta, horren harira, domekan 12.30etan Coliseo antzokian eskainiko duen kontzertuan Kezka dantza taldearen laguntza izango du taulan.

### 1950ean jaiotakoak

Urte horretan jaio direnak azaroaren 5ean afaria egiteko asmoa dute. Azitain erretegiaren izango den afarira joan nahi duenak 60 euro sartu beharko ditu kontu korronte honetan: 30350023920231142203. Izena emateko azken eguna urriaren 30a izango da.

### Arrateetako kalabaza

Gazteen txosnan Arrateko jaietan zenbat pisatzen zuen asmatu beharreko kalabazak 2'358 kilo pisatzen zituela argitu dute antolatzaileek. Parte hartu zutenen artean benetako pisura gehien gerturatu zenak 2'378 kilotan ezarri zuen pisua eta saria jasotzeko Monteka tabernara joan beharko da (saria jasotako diruaren parte bat da).

# LITERATURAko berritasunak PLAZAN

Urteroko martxari jarraituta, **gaurtik hasita** eta datorren **urriaren 24ra arte** martxan egongo da Eibarko Liburu eta Disko Azoka. Euskadiko Liburu Ganbarak antolatzen duen azokak Eusko Jaurlaritzaren eta Udalaren laguntasuna jasoko du eta, bere izaerari eutsita, merkatuko azken berritasunak ekarriko dizkigu eibartarroi, esku-eskura eta, gainera, prezio berezian. Horrelako baldintzak eskainita, datozen egunotan goizez eta arratsaldeztan Untzagan zabalik egongo diren saltokietara gerturatzeko gonbidapenari nola uko egin?


Egutegi bete-betea izaten du Euskadiko Liburu Ganbarak, herririk herri antolatzen dituen azokei dagokionean. Izan ere, liburu azoken kanpaina urte osoan zehar izaten da eta 22 azokak osatzen dute. Mungian ekin zion ibilbideari eta azken azoka Galdakaon egingo da, abenduan. Antolatzailerik azaldutakoaren arabera, "kanpaina lau azoka mota bereizi behar dira. Batetik, Nobedadeko Azoka Nagusia aipatu behar dugu, Bilbo eta Donostian ospatzen dena. Zahar eta Okasiozko Azoka ere antolatzen dugu (Bilbo, Donostian eta Gasteizen). Euskal Liburu eta Disko azokak Galdakao, Hondarribia, Ermua, Basauri eta beste hainbat tokitan ipintzen dira eta, horiez guztiez gain, herririk-herri antolatzen diren azokak daude. Eibarren ez ezik, Mungian, Berme-

on, Laudion, Amurrión, Barakaldon, Santurtzin, Lekeition, Hondarribian, Zarautzen, Tolosan, Ondarrun, Hernanin, Arrasaten eta beste hainbat herritan urtero antolatzen ditugu liburu azokak".

Urriaren erdialdera ailegatuta askoren begiradak Durangora ipinita egon arren, Asier Muniategi ganbarako arduradunak urtero errepikatzen digu Eibarkoa salmentetarako oso plaza ona



Asier Muniategi Liburu Ganbarako ordezkaririk Eibarko oso plaza ona izaten dela dio.



Gehien saltzen ari diren lanak %10eko beherapenarekin erosteko aukera dago. / SILVIA HERNANDEZ

dela, "Bilbo eta Donostiaren ondotik onenetakoa". Udaletxe pareko plaza beteta egongo da, urteroko moduan. 18 posturen bueltan ibiliko da azoka, urteroko parte-hartzaileekin, zerrendan aldaketa haundirik ez da egoten-eta. Izan ere, azokak gurean duen muga fisikoa da, "stand gehiagorako tokirik ez baita izaten".

## Urteroko parte-hartzaileak

Eibarko Udalak berak, batez ere Ego Ibarrenaren bitartez kale-ratzen dituen lanekin batera, Gipuzkoako Foru Aldundiaren argitalpenak eta Ayerbe liburudendak eskaintakoak aurkituko ditugu saltokietan, Gipuzkoako, Bizkaiko, Arabako eta Nafarroako li-

burutegi eta argitaletxeek ekarriko duten eskaintzarekin batera. Horien artean Erein, Zabaltzen, Ttartalo, Elkar, Urretxindorra, Herriak, Ibaizabal, Txalaparta, Xalbador... aipatu behar ditugu eta, nola ez, formato txiki-txikia izan arren arrakasta haundia izaten duten peruarren liburu bitxiak ez dira faltako. Baina bitxikeriatan sartu barik, kasu guztietan, komunean izango duten ezaugarria nobedade edo berritasunek hartuko duten tarte da. Izan ere, eleberri zein bestelako kasuan, une honetan arrakasta gehien izaten diharduten lanek hartzen dute tarte gehien, "idazle ezagunen lanak, modan ipini diren egileenak, erraz irakurtzen diren horietakoak".

Kasu guztietan %10eko deskontuarekin salgai egongo dira produktuak, eta hori ere krisi sasoi honetan anbertaila dela azpimarratzen dute antolatzailerik. Beraz, aukera aprobetxatu nahi baduzue gogoan izan egunero zabalik izango dela azoka, astegunetan 11.00etatik 14.00etara eta 17.00etatik 21.00etara eta asteburuetan, berriz, piskat gehiago, 11.00etatik 14.30etara eta 17.00etatik 21.30etara.

Zerbitzu osatuak Eibar eta eskualdeko osasun zentru eta etxeetan

Gipuzkoa, Espainia eta nazioartetik egiten dira trasladoak

**NTRA. SRA. DE BEGOÑA**

**EHORZKETA-BEILATOKIA**

• KOROAK • ESKELAK • HILARRIAK • AGIRIAK

BULEGOAK ETA ERAKUSKETA:  
Txaltxa-Zelai, 4-6 - behe, ezk.

ZERBITZU IRAUNKORRA:  
☎ 943 201095 fax: 943 202564

**EMAKUME ETA GIZON  
MODA**

**Valenciaga**

**KONFEKZIOAK**


☎ 943 20 22 33

**ZULOAGATARREN, 7**




# laztanak emoten...


Zure senide edo lagunena bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena (bikoteak...) 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.




Ongi etorri, hillaren 6xan jaixotako AINHOA Unanue Thobie. Zorionak Sophie eta Iñaxiori be, famelixa guztiaren partez.




Zorionak, JAKES, aurreko astian urte bi bete zenduazelako. Muxu haundi bat ama, aitta eta etxeko guztien partez.




Zorionak, PERU, bixar zazpi urte egingo dozuzelako. Zazpi milla muxu etxeko guztien partez.




Zorionak, EKHI, domekan urtia beteko dozu-eta. Muxuak gurasuen partez.




Zorionak, MADDI Larreategi, hareñegun urtia egin zenduan-eta. Aitxixa, amama eta famelixa guztiaren partez.



Zorionak, JUNE, bixar zazpi urte egingo dozuzelako. Muxua eta belarririk tirakadia etxekuen partez.



Zorionak, IZARO, aurreko domekan urte bi egin dozuzelako. Muxu haundi bat etxeko sorgiñarendako. Famelixaren partez.



Ongi-etorri, NAIA, eta zorionak Ion eta Lorenari. Famelixa guztiaren partetik.



Zorionak, UNAX Gisasola Egidazu, bixar hiru urte egingo dozuz-eta. Famelixaren partez.



Zorionak, JULEN, zure lehelengo urtebetetzian. Patxo haundi bat famelixaren partez.

## JAIOTAKOAK

- Aratz Amillategi Alberdi. 2010-X-2.
- Miren Bolinaga Medina. 2010-X-4.
- Marko Morquecho Hernández. 2010-X-6.
- Ekain Olaetxea Markina. 2010-X-7.
- Nawal Akarouch. 2010-X-8.
- Naia Guridi Hernández. 2010-X-11.

## HILDAKOAK

- Felisa Elorza Ansoa. 74 urte. 2010-X-8.
- Milagros Bilbao Amparan. 82 urte. 2010-X-8.
- Rafael Calatayud Del Cabo. 68 urte. 2010-X-8.
- Dosinda Silveiras González. 95 urte. 2010-X-11.
- Leoncio Guenetxea Lazpita. 92 urte. 2010-X-12.

zinea Coliseoan

**15ean, 22.30etan; 16an, 17.00, 19.45 eta 22.30etan; 17an, 17.00 eta 20.00etan**

### "The Karate Kid"

Zuzendaria: Harald Zwart  
Aktoreak: Jackie Chan, Jaden Smith, Taraji P. Henson, Wenwen Han



Bere amaren lana dela-eta, hamabi urteko Dre Parker Detroitetik Txinara joan beharko da bizitzera. Klaseko Mei Ying neskaren laguna egingo da, baina baita Cheng klaseko harroputzaren aurkari. Han jaunak erakutsiko dio kung fu egiten ere...

### "Wall Street"

Zuzendaria: Oliver Stone  
Aktoreak: Michael Douglas, Shia LaBeouf, Carey Mulligan, Martin Sheen



Munduko ekonomiaren krisiaren erdian, Jacob Moore broker-aren aholkulariak bere buruaz beste egiten du. Haren ohorea mendeatzeko, kartzelan 20 urte egin dituen Gordon Gekkoari eskatuko dio laguntzea; azken honen alaba sartuko da tartean.

### "Cartas a Julieta"

Zuzendaria: Woody Allen  
Aktoreak: Amanda Seyfried, Vanessa Redgrave, Gael G<sup>a</sup> Bernal, Franco Nero



Sophie eta Victorrek Italian oporretan dagoen bikotea osatzen dute eta "Julieta" zuzendua" dioen eskutitza jasoko dute. Eskutitz hori Lorenzo izeneko gizona bilatzen diharduen Clairek idatzi du. Sophie gizon horren bila abiatuko da Toscanan zehar.

### "Gru, mi villano favorito"

Zuzendaria: Chris Renaud  
Aktoreak: Jason Segel, Steve Carell, Kristen Wig, Ken Jeong



Luxuzko urbanizazio bateko biztanleek euren buruari galdetzen diote zer egiten duen bertan lagata ematen duen etxe zikin batek. Ez dakite bere ejerzito txikiarekin Ilargia lapurtu nahi duen Gru-ren ezkutalekua dela. Hiru umezurtzek aitatat hartu nahiko dute.

3D

## horoskopoa

**ARIES**

Beriz ere oporretan pentsatzen? Zer da burutik kendu ezin duzuna, eguraldi ona eta egun luzeak edota udan ezagutu zenuen hura?

**TAURUS**

Gauzak esan aurretik hamarreraino kontatu beharrean, badirudi zuk milaraino kontatzen duzula. Esan pentsatzen duzuna; izan ausarta.

**GEMINI**

Berba egiten dizunean gelditzen zaizun aurpegia eta barre urduri horrek barruraino maiteminduta zaudela erakusten dute.

**CANCER**

Lagaizu ilea behingoz pakean! Egun osoa ematen duzu ilea ikutu eta burua alde batetik bestera mugitzen, ingurukoak urduritzen.

**LEO**

Esnatu behingoz! Azken aldian badirudi beste nonbaiten duzula burua. Hankasartzeak garesti ordainduko dituzu bestela.

**VIRGO**

Espero ez duzun lagun batekin topo egin eta berri pozgarriak emango dizkizu. Aprobetxatu sasoi on hau, merezi du-eta.

**LIBRA**

Osasun aldetik ez zabilta oso ondo eta parrandaz- parranda ibiltzeak ez dizu batere laguntzen. Zaindu zaitetz apur bat gehiago.

**SCORPIUS**

Haserretzen zaren bakoitzean, inguruko guztiekin ordaintzen duzu. Saiatu besteekin berba egiten eta normaltasunez jokatzeko.

**SAGITTARIUS**

Kementsu zabilta eta buruan duzun hori lortu arte ez zara geldituko. Jarraitu horrela; bide onetik zoaz eta lortuko duzu.

**CAPRICORNIUS**

Zenbat egun daramazu ideia berarekin buruan? Erabakiren bat hartu behar duzu lehenbailehen; bestela zoratu egingo zara.

**AQUARIUS**

Kontuz ibili esaten duzunarekin eta, batez ere, adi egon zaitetz zeini esaten diozun. Aukeratu ondo lagunak eta konfidentekak.

**PISCIS**

Gezur itxura duen zerbait esango dizute, baina ez da horrela izango. Lasaitasunez entzun emango dizkizuten argibide guztiak.

**Barixakua 15**

**LIBURU ETA DISKO AZOKA**  
**11.00-14.00/17.00-21.00.-** Untzagan.

**LIP DUB FINALA**  
**19.00.-** I. Euskarazko Lip Dub lehiaketaren finala. Sarrera: 5 euro. Coliseoan.

**Zapatua 16**

**LIBURU ETA DISKO AZOKA**  
**11.00-14.00/17.00-21.30.-** Untzagan.

**UMEENDAKO IKUSKIZUNA**  
**17.00.-** "Momentari", Nats Nus taldearen eskutik. Sarrera: 4 euro. Coliseoan.

**Domeka 17**

**LIBURU ETA DISKO AZOKA**  
**11.00-14.00/17.00-21.30.-** Untzagan.

**KONTZERTUA**  
**12.30.-** Usartza Txistulari Banda eta Kezka dantza taldea. Coliseoan.

**Astelehena 18**

**LIBURU ETA DISKO AZOKA**  
**11.00-14.00/17.00-21.00.-** Untzagan.

**GURASOENDAKO HITZALDIA**  
**18.30.-** "Euskararekiko jarrera eta motibazioak". Hizlaria: ...eta kitto! Euskara Elkarte. Antolatzailea: Udala. Portalean.

**Martitzena 19**

**IKASTEN**  
**10.00.-** "Inteligencia emocional 1. eta 2. zatia". Armeria Eskolan.

**LIBURU ETA DISKO AZOKA**  
**11.00-14.00/17.00-21.00.-** Untzagan.

**HITZALDIA**  
**19.00.-** "Haïti después del terremoto", José Luis Soto eta Lisa Andre-ren eskutik. Portalean.

**Eguaztena 20**

**IKASTEN**  
**09.30.-** Donostia-Pasaia mendi-ibilaldirako autobusaren irteera (Ego-Gainetik). 09.35etan Bidebarrietatik.

**LIBURU ETA DISKO AZOKA**  
**11.00-14.00/17.00-21.00.-** Untzagan.

**HITZALDIA**  
**19.00.-** "La secular industria armada vasca. Éxitos y desencuentros con el poder", José M<sup>º</sup> Peláez irakaslearen eskutik. Portalean.

**Eguena 21**

**LIBURU ETA DISKO AZOKA**  
**11.00-14.00/17.00-21.00.-** Untzagan.

**SENDABELARREN FOROA**  
**15.30-18.00.-** Pomadak egiteko tailerra. Sarrera doan. Portalean.

**EGO IBAR ZINE KLUBA**  
**17.30/21.00.-** "Welcome" (Zuz: Philippe Lioret). Sarrera: Euro bi. Hezkuntza Esparruan.

**ikastaroak**

– **Biodantza (emakumeentzat).**

Noiz: Eguenetan, 14.45etatik 16.30etara, Portalean (dantza gelan). Izen-ematea eta informazioa: 626661292 telefono zenbakian (Mentxu).

**lehiaketak**

– **"Sanandresak 2010 Eibarren" kartel lehiaketa.**

Lanak aurkeztea: Urriaren 19ra arte, Pegoran.

– **San Andres bertso paper lehiaketa.**

Informazioa eta lanak aurkeztea: Azaroaren 5era arte, ...eta kitto! Euskara Elkarte.

**diru-laguntzak**


– **Umeak Eskolara.**

Eskaerak aurkeztea eta informazioa: Abenduaren 1era arte, Pegoran.

– **Diru-laguntzak ikasleei.**

Eskaerak aurkeztea eta informazioa: Abenduaren 1era arte, Pegoran.





**erakusketak**

- Urriaren 16ra arte  
**AINIZE TXOPITEA**ren margolanak.  
*Zazpi arte galerian (Zarautz).*
- Urriaren 17ra arte  
**JOSE LUIS MARTÍNEZ**-en argazki erakusketa:  
*"Portugal". Debako Turismo Bulegoan.*
- **ALICIA ITURRIOZ**-en margo erakusketa. *Topalekuan.*
- Urriaren 20ra arte  
**JOSE LUIS IRIGOIEN**-en "Vietnam" argazki erakusketa. *Gipuzkoako Argazkilari Elkartean (San Juan, 27, Donostia).*
- Urriaren 24ra arte  
**ESTEBAN OROZ**-en margo erakusketa.  
*Ezkurdiko Udal Aretoan (Durango).*
- Urriaren 30era arte  
**MATEO GUILABERT**-en "Bardeak" argazki erakusketa. *Portalea tabernan.*
- **XAQUÍN ROSALES**-en argazki erakusketa.  
*El Ambigú tabernan.*
- **MIKEL OROZKO**-ren "Berlin in Furs" argazki erakusketa. *Durangoako Arteka liburudendan (Artekale, 20).*
- Azaroaren 30era arte  
**HERRI KIROLÉN**-ren inguruko erakusketa.  
*El Corte Inglés-ean.*

**farmaziak**

- 15, barixakua**  
EGUNEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)  
GAUEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)
- 16, zapatua**  
EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)  
GAUEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)
- 17, domeka**  
EGUNEZ **Las Heras** (Sostoatarren, 10)  
GAUEZ **Las Heras** (Sostoatarren, 10)
- 18, astelehena**  
EGUNEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)  
GAUEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)
- 19, martitzena**  
EGUNEZ **Larramendi** (Calbetón, 19)  
GAUEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)
- 20, eguaztena**  
EGUNEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)  
GAUEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)
- 21, eguena**  
EGUNEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)  
GAUEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)
- 22, barixakua**  
EGUNEZ **Zulueta** (S. Agustín, 5)  
GAUEZ **Zulueta** (S. Agustín, 5)

**telefono jakingarriak**

- SOS delak .....112
- Pegora .....010
- Udaletxea .....943 70 84 00
- Portalea .....943 70 84 39
- Udaltzaingoa.....943 20 15 25
- Mankomunitatea943 70 07 99
- Debegesa.....943 82 01 10
- KIUB .....943 20 38 43
- Epaitegia .....943 03 34 00
- Iberdrola .....901 20 20 20
- Naturgas .....902 12 34 56
- DYA Larrialdiak.943 46 46 22
- Gurutze Gorria..943 22 22 22
- Mendaro osp.....943 03 28 00
- Anbulategia.....943 03 25 00
- Torrekuia .....943 03 26 50
- Errepideak .....902 11 20 88
- Ertzaintza .....943 53 17 00
- Eusko Tren .....902 54 32 10
- Pesa .....902 10 12 10
- Taxiak.....943 20 30 71
- .....943 20 13 25
- Alkohol.Anon. ..629 14 18 74
- Al-Anon/Alateen 650 26 59 63

**autobus ordutegiak**

- EIBAR-DONOSTIA.** Lanegunak: 07.00etatik 9.30etara ordu erdiro eta 09.30etatik 20.30etara orduro. Zapatuak: 07.00 eta 08.30etatik 20.30etara orduro. Jaiegunak: 08.30, 10.30, 12.30, 13.30, 15.30, 17.30, 19.30 eta 21.10. **DO-NOSTIA-EIBAR.** Lanegunak: 07.00, 07.30etatik 14.30etara orduro, 15.00, 15.30etatik 18.30etara orduro, 19.30, 20.30 eta 21.00. Zapatuak: 07.00, 08.30etatik 20.30etara orduro, 21.00 eta 22.00. Jaiegunak: 08.30etatik 18.30etara bi orduro, 19.30, 21.00 eta 22.00.
- EIBAR-BILBO.** Lanegun eta zapatuak: 06.40etatik 20.40etara orduro. Jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara orduro. **BILBO-EIBAR.** Lanegunak: 06.40etatik 21.40etara ordu erdiro. Zapatu eta jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu erdiro.
- EIBAR-GASTEIZ.** Lanegunak: 07.00etatik 21.00etara orduro eta 06.15, 10.15, 14.15 eta 18.15. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30.
- GASTEIZ-EIBAR.** Lanegunak: 06.30etatik 20.30etara orduro eta 12.00, 16.00 eta 20.00. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30.
- EIBAR-IRUÑEA.** Lanegunak: 07.45 eta 13.30. Jaiegunak: 07.45 eta 18.00. **IRUÑEA-EIBAR.** Laneguna: 11.00 eta 18.00. Jaiegunak: 11.00 eta 21.00.
- EIBAR-ARRATE.** Egunero: 15.30. Zapatuak: 14.15. Jaiegunak: 09.00, 10.00, 11.00, 13.00 eta 18.00. **ARRATE-EIBAR.** Egunero: 16.00. Zapatuak: 14.45. Jaiegunak: 09.30, 10.30, 11.30, 13.30 eta 18.30.
- EIBAR-ELGETA.** Lanegunak: 13.30 eta 20.30. Jaiegunak: 12.00 eta 19.00. **ELGETA-EIBAR.** Lanegunak: 14.00 eta 20.50. Jaiegunak: 12.30 eta 19.30.
- EIBAR-MENDARO.** Lanegunak: 06.20 eta 07.05etatik 22.35etara ordu erdiro. Zapatuak: 07.00etatik 21.00etara orduro. Jaiegunak: 08.00etatik 21.00etara orduro. **MENDARO-EIBAR.** Lanegunak: 06.45etatik 21.15etara ordu erdiro eta 21.55. Zapatu eta jaiegunak: 07.45etatik 20.45etara orduro eta 21.55.
- tren ordutegiak**
- EIBAR-DONOSTIA.** Egunero: 08.13etatik 22.15etara orduro, 10.55 eta 21.55. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **DONOSTIA-EIBAR.** Egunero: 07.47etatik 20.47etara orduro, 9.20 eta 20.20. Lanegunak: baita 05.47 eta 06.47.
- EIBAR-BILBO.** Egunero: 08.13etatik 22.13etara orduro, 10.56 eta 21.56. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **BILBO-EIBAR.** Egunero: 06.57etatik 20.57etara orduro, 09.34 eta 20.34. Lanegunak: baita 05.57.

SUDOKUA

	4					6
		1	5		7	8
		7	4			
3		5		7		8 9
	1	4		5		3 7
					3 4	
	7		9		2 1	
2						3

**DENBORAPASAK**



AURREKOAREN EMAITZA

## 1. Etxebizitza

### 1.1. Salgai

- Pisua salgai Estaziño kalean. 3 logela. Ganbara eta igogailuarekin. Handia, eguzkitsua eta dena kanpora begira. Tel. 657-721018. Sonia.
- Pisua salgai Eibarko erdialdean. 3 logela, egongela, sukaldea eta komun bi. Trasteroa eta igogailuarekin. Guztiz berritua eta argitsua. 130 m<sup>2</sup>. Tel. 626-203838.
- Pisua salgai Saratsuegin (5. solairua). 68 m<sup>2</sup>. 2 logela, egongela, jantokia, sukaldea eta 2 komun. 2 garaje plaza eta 11 m<sup>2</sup>ko trastelekua. Pisuarekin Citroen C-3 opari (aukeran). 260.000 euro (negoziagarriak). Tel. 669-737751 eta 676-553108. Vanessa.
- Mutilak pisua konpartituko luke. Tel. 617-856585.
- Emakume batendako logela eskaintzen da. Pisua erabiltzeko eskubidearekin. Tel. 686-286110.
- Pisua salgai Barrera kalean. 3 logela, egongela, sukaldea, komuna eta despentsa. Kalefakzioa eta igogailua. Altua eta eguzkitsua. Berritua eta jantzita. Tel. 678-287400.
- Pisua salgai Legarren. 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Berrituta. Bizitzera sartzeko moduan. 24.500.000 pta. Tel. 659-687736.

### 1.2. Errentan

- Mutil serioak (ikaslea) logela hartu edo pisua konpartituko luke alokairuan. Tel. 666-191152.
- Pisu baxua alokatuko nuke. Tel. 943-702421 edo 620-666446.
- Pisua hartuko nuke alokairuan, bikote batendako modukoa. Tel. 667-355646.
- Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. Tel. 659-037882.
- Gela eskaintzen da alokairuan. Tel. 610-607610.
- Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. Tel. 693-950032.

## 2. Motorra

### 2.1. Salgai

- Furgoneta VW California T4 salgai. 146.000 km. Sukalde, hozkailu eta fregaderarekin. 4 ohe plaza. Egoera onean. 13.700 euro. Tel. 671-841563.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxean, lokalen eta autoen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak, garajeak: alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro. Autoak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**

## 1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

## 2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

## 3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

## 3. Lokalak

### 3.1. Salgai

- Garaje itxia salgai Barrera kalean. 18 metro eta erdi. Garajes Garcia eraikinean. Tel. 686-333014.
- Erabilpen askotarako txoko edo lokala salgai edo alokagai Eibarko erdialdean. Berritua, sukaldea eta komunarekin. Tel. 669-293427.

## 4. Lana

### 4.1. Lan bila

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 943-752329 edota 648-514535.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 635-313375.
- Neska euskalduna eskaintzen da goizez haurrak eskolara eramateko. Tel. 685-778554.
- Neska eskaintzen 13.00etik 18.00etara tabernak, etxeak eta soziedadek garbitzeko. Tel. 606-169667.
- Mutila eskaintzen da igeltsero moduan, pintatzen jarduteko edo nagusiak zaintzeko. Tel. 686-274490.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 608-147559.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Egun osoan. Tel. 678-972690. Sisi.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako lanetarako. Tel. 666-771151.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako lanak egiteko orduka. Tel. 648-603029.
- Neska eskaintzen da umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tel. 685-765340.

## 4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

## 5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

## 6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

- Emakumea eskaintzen da asteburuetan nagusiak zaintzeko. Erreferentziak. Tel. 618-175692.
- Gizona eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Gidatzeko baimena eta autoa. Erreferentziak. Tel. 695-701753.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako lanetarako. 15.00etatik 18.00etara. Tel. 647-044031.
- Neska eskaintzen da arratsalde nagusiak edo umeak zaintzeko eta pegorak garbitzeko. Tel. 645-461600. Arrate.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako lanetarako. Tel. 696-246962.
- Emakumea eskaintzen da astelehenetik barixakura arte gauzez lan egiteko; baita asteburuetan ere. Tel. 680-223378.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako lanak egiteko. Tel. 680-223378.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako lanetarako eta nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 669-966611.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako lanetarako eta nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 659-080186.
- Neska eskaintzen da ilepaintedirako laguntzaile. Tel. 650-280670.
- Neska arduratsua eskaintzen da orduka garbiketarako egiteko eta umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 656-345891.
- Neska eskaintzen da goizez nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako lanak egiteko. Tel. 608-886701.

## 4.2. Langile bila

- Aho-hortzetako higienista behar da Ermuko hortz-klinika batean. Deitu 18.00etatik aurrera. Tel. 615-724810.
- UGAN Klubak aerobic monitorea behar du. Curriculumak bidali F. Calbetón, 21-era edo uganklub@euskalnet.net helbidera.
- Taxi lizentzia transferitzen da, jubilazioa dela-eta. Tel. 693-937373.
- Neska euskalduna behar da umea zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tel. 616-801304.
- Magisteritzan graduatutako unibertsitaria behar da akademia batean laguntza-klaseak emateko. Tel. 652-763264. centrobart@gmail.com
- Pintorea behar da, 2. mailako ofiziala edo apendizak. Tel. 660-522587.

## 5. Irakaskuntza

### 5.2. Eskaintzak

- Gitarra eta Harmoniako klaseak ematen ditut. Tel. 647-289145.

## 6. Denetarik

### 6.1. Salgai

- Klarineta salgai. Oso egoera onean. Tel. 617-808785.
- Txori kaiola berria salgai. 61x38x52 zm. 45 euro. Tel. 686-325346.
- Ordenagailua salgai. Apple i Mac 24". 320 MB. Urte eta erdikoa. Oso egoera onean. 850 euro. Tel. 663-522433.

### 6.3. Galdu/Aurkitu

- Belarritakoa galdu nuen Karmengo elizaren inguruan. Urre zuria eta brillanteduna. Bueltatzen duena sarituko da. Tel. 616-351176.



## Klinikan %15eko deskontua inplante tratamenduetan

- inplanteak eta hartz fijoak egun batean
- ia batere erasotzailea ez den ordenagailuz bideratutako kirurgia, punturik erabili gabe
- "invisaling" ortodontzi ikusezina
- haurrentzako ortodontzi tratamendu prebentiboak eta korrektoreak (Osakidetza-PADI)
- pazientearen irribarrea sesio batean aldatzen duten karilla estetikoak
- interesik gabeko finantziazioa 18 hilabetera arte

[www.dentalaldaz.com](http://www.dentalaldaz.com)

● Aldaz Hartz Klinikak tratamendu aurreratuenetan aplikatutako punta puntako teknologia eskaintzen dizu

Deitu gure zerbitzua ezagutzeko

San Bartolome, 22 (Elgoibar) / Ola kalea, 10 (Lasarte-Oria)

**943 366 377**

# 16 urte

KULTU

**KULTU**  
TABERNA

# eibartarron zerbitzura

*Eskerririk asko  
guztiori*

Zuloagatarren, 3    Tel. 943 20 84 39

## TEORIKA ATERATZEKO IKASTARO TRINKOAK

**Materia arriskutsuak / C.A.P.**

Merkantziak eta bidaiariak garraiatzeko  
**nazioarteko** agentzia **ziurtagiriak**  
lortzeko ikastaroak




**Estaziño kalea, 8  
Tel. 943 70 23 78**

**BERRIA**

**T. Etxebarria, 7  
Tel. 943 70 23 84**

**Jaka  
Ezkarai  
eta inguruak**



ERAIKUNTZA  
BERRIKO  
ETXEBIZITZEN  
SALMENTA  
JAKA,  
EZKARAI  
ETA  
INGURUETAN



# EUKI

T. Etxebarria, 1 - behea  
Tel. 943 20 03 58

## FINKAK

[fincas@euki.com](mailto:fincas@euki.com)